

ASKOREN ARTEAN

Euskararen liburu zuria

(675 orrialde)



ASKOREN ARTEAN, 1978, *Euskararen liburu zuria*, Bilbo: Euskaltzaindia.

Euskaltzaindiaren gidaritzapean paratu zen liburu hau (Produkzio Batzorde batekin; Euskaltzainditik J. L. Lizundia), SIADECO lantaldeak koordinaturik (X. Agirre, I. Larrañaga) eta Lan Kide Aurrezkiaren sustapen (X. Albistur, M. Lasa) eta erakunde-laguntzarekin.

Lankide anitz izan zuen argitalpenak: 16 idazle, 6 itzultzaile, eta itzulpen guztien begirale bat (D. Amundarain). M. Ugaldek eraman zituen zuzendaritza eta testuaren azken begiratuaren ardura.

“Liburu baten biografia” deritzan sarreran ikus daiteke nola egin zen dena.

Zetozen erronka berriei egokiago eta jakinaren gainean erantzuteko prestatu zuen Euskaltzaindiak liburu hau (1975-1978).

Historialari eta hizkuntzalariez gainera, jakite-alor ezberdinetako lankideak ditu.

Euskararen historia sozialaz ari da gehienbat, eta gogoetarako aztergai anitz dago bertan bilduta.

EHSaz duen informazio orokor aberatsagatik eman diogu hemen dagokion lekua.

Koldo Mitxelenaren lehen hitzek irekitzen dute liburuia (“Euskararen bide luze bezain malkarrak”), ondoko puntuok ukituz: Euskararen izate ñabarra, berezitasunak eta eraginak, halabehar historiko eta administratiboa, iraupen harrigarria, atzerakada, beranduko erantzun ahula, eragozpenak eta debekuak, eredu batua, aurrerapenak, etorkizuna.

Lehen zatiak hizkuntzaren aurkezpen linguistiko, antropologiko eta politikoak eskaintzen ditu (M. Pagola, P. Agirrebaltzategi, J. Intxausti).

Bigarrenak, ostera, euskararen kanpo-historia eta euskara idatziaren historia (L. Villasante), eta ahozko literaturarena (J.M. Lekuona).

Hirugarren zatiak euskararen bizitza alde ezberdinetatik baldintzatu duten eragin sozialak ematen dizkigu: sozioekonomikoak (K. Larrañaga), soziokulturalak (J.M. Barandiaran, J.M. Satrustegi), politiko-administratiboak (G. Monreal, M. Rica), legezkoak (J. Urrutia) eta euskarak Estatutuetan izan zuen trataera (J. M. Castells).

Laugarren zatiak, nazioarteko Erakundeetan eta Estatu ezberdinetan hizkuntza ez-ofizialei buruz hartutako erabaki ofizialak (J.A. Obieta) eta hainbat herritan hizkuntza zapalduak berreraikitze egindako ahaleginak (J.L. Alvarez Enparantza “Txillar-degi”).

Bosgarren zatiak, azkenik, elebitasunari buruzko oinarriak eskaintzen ditu (M.J. Azurmendi).

Badago gaztelaniaz ere,
El libro blanco del euskara
izenburuarekin.
[Euskaraz. Gaztelaniaz](#)